

Espediente kodea: 2014ILEP0003

LANERA KONTRATAZIOAK 2014

HAUTAKETA-PROZESUA EUSKARAREN SUSTAPENA: 3 LANGILE

Urola Kostako Udal Elkartearen LANERA KONTRATAZIOAK izeneko programa ENPLEGU PLANAREN barruko ekimen bat da. Plan horren helburu nagusia da eskualdearen gizarte eta ekonomia sustatu eta herritarren ongizatea areagotzea. Hori lortzeko, hainbat programa eta lan ildo ditu planak, besteak beste LANERA KONTRATAZIOAK programa.

LANERA KONTRATAZIOAK programaren helburua da, lana lortzeko herritarrek dituzten aukerak areagotzea eta, horretarako, kualifikazio maila baxu zein altuko langabeak kontratatzea.

Horrenbestez, programa honen bidez, batetik, eskualdeko langabeak kontratatuko dira, gizarte intereseko lanak egiteko, eta, bestetik, langabe horiei lanbide jakin batzuetako prestakuntza eskaini, lan orientazio egoki bat eman eta lana aurkitzeko aukerak areagotzea lortuko da.

2014ko programa bideratzeko diru baliabideak jarri dituzte Urola Kostako Udal Elkarteak eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalek. Programa bera Udal Elkarteak kudeatu eta bideratuko du.

Ondoren dituzun oinarriek euskara sustatzeko lanak egingo dituzten langileen hautaketa prozesua arautzen dute.

EUSKARAREN SUSTAPENA: 3 LANGILE OINARRIAK

LAN-ESKAINNTZA

Espezialitatea: euskararen sustapena

Eskualdean euskararen erabilera indartzeko ekimenak, Udal Elkarteko eta udaletako euskara zerbitzuen gidaritzapean. Landuko diren arloak:

- Merkataritza
- Ostalaritza
- Kirola
- Beste batzuk

Lanpostuak: 3 langile

Kontratuaren ezaugarriak:

Iraupena: 6 hilabete (luzapenik gabe), lanaldi osoa. Hasiera 2014ko urrian.

Lan-hitzarmena: Udalhitz, ordainsarien maila 12,5a (hileko ordainsari gordina 2.200,00 € inguru).

HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

1. Parte hartzeko baldintzak

Onartua izan eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ondorengo baldintza hauek bete behar dituzte hautagaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanik bere kontura bizi badira.
Halaber, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan egoiliar gisa dauden pertsona atzerritarrek, nahiz eta aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak bete ez. Horietako bat hautatua izango balitz, kontratua gauzatu aurretik egiaztatu egin beharko luke kontratuaren objektu den jarduera burutzeko behar duen administrazio-baimena baduela.
- b) 16 urte beterik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.
- c) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille langabe gisa inskribatuta egotea alta egoeran, eskabideak aurkezteko epe-mugan (2014ko uztailaren 22an amaituko da epea).
- d) Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian errolatuta egotea, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epe-mugaren aurretik.
- e) Unibertsitate ikasketak (diplomatua edo lizentziatua) honako ikasketa hauetan: Hezkuntza Zientziak, Euskal Filologia, Soziologia, Komunikazio Zientziak.
- f) Hirugarren hizkuntza eskakizunaren titulu edo ziurtagiriaren jabe izatea (edo C1 mailaren baliokidea; ikus baliokidetasunak honako Dekretuan: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena (azaroaren 15eko EHAA, 219 zk.).
- g) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiek, eskatzen zaien unean.
- h) Diziplina-espeditente bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea; halaber, epai bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez izatea, lanpostu edo kargu publikoan aritzeko, funtzionarioen eskalan sartzeko edo, lan itunpeko langileen kasuan, desgaitutako lanpostuaren antzeko eginkizun edo jarduerak burutzeko. Beste estatu bateko naziotasuna izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; halaber, bere estatuan enplegu publikoa lortzea galarazten dion diziplina zigor edo antzekorik ez izatea.
- i) Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, dagozkion lege-xedapenek ezarritakoaren argitara.

2. Izena non eta nola eman eta epea

Hautaketa prozesuan parte hartzeko honakoak aurkeztu behar dira: eskabidea (l. eranskina), behar bezala beteta, eta oinarri hauen 6. atalean zehazten diren dokumentuak.

Eskabideak aurkeztu behar dira honako helbidean:

Urola Kostako Udal Elkarteak
Sarrera Erregistroa
Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz

Epea: eskabidea aurkezteko epea amaituko da uztailaren 22an, 15:00etan. Eskabideak aurkezteko bulego-ordutegia: 8:00-15:00.

Argibideak jasotzeko jarri harremanetan Urola Kostako Udal Elkartearekin:

Tel. 943890808, Emaila: idezkaritza@urolakosta.org

3. Onartuen eta baztertuen zerrendak

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udal Elkarteak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda emango du argitara, Udal Elkartearen iragarkien taulan eta webgunean (www.urolakosta.org) eta baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu.

Baztertutako pertsonen 4 eguneko epea izango dute akats edo okerra zuzentzeko. Jarraian, Udal Elkarteak behin betiko zerrenda emango du argitara.

4. Hautaketa prozesua

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: merezimenduen eta hautagaien balorazioa batetik, eta elkarrizketa bestetik.

4.1. Hautagaien datuen balorazioa

Udal Elkarteak onartutako hautagai guztiak balioetsiko ditu, aurkeztutako eskabide eta egiaztagirietako datuak eta Lanbideko aplikazioaren bidez egiaztatutako datuak kontuan hartuta. Balioespena egiteko bi irizpide multzo hauek hartuko dira kontuan: batetik, lan esperientzia eta prestakuntza eta, bestetik, egoera sozioekonomikoa. Hona hemen:

Lan-esperientzia eta prestakuntza		Puntuak
Lan-esperientzia euskararen normalizazioaren arloan, eskualdeko euskalgintzan, IKTen erabileran: deialdi honetako lanpostuen eginkizunekin zerikusituz zuzena duena	<ul style="list-style-type: none"> Hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu. Gehienez 10 puntu. 	10
Lan-esperientzia euskararen normalizazioaren arloan, eskualdeko euskalgintzan, IKTen erabileran: deialdi honetako lanpostuen eginkizunekin zeharka zerikusia duena	<ul style="list-style-type: none"> Hilabete oso bakoitzeko 0,15 puntu. Gehienez 5 puntu. 	5
Prestakuntza: hizkuntz plangintzan, IKTen arloan eta lanpostuarekin zerikusia duten arloetan	<ul style="list-style-type: none"> 20 ordu arteko ikastaroak, bakoitzeko 0,5 puntu 	3
	<ul style="list-style-type: none"> 20-150 orduko ikastaroak, bakoitzeko puntu 1 	3
	<ul style="list-style-type: none"> Gradu-ondo, master eta antzekoak, (150 orduetik gorakoak) bakoitzeko 2 puntu 	4

Lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko du, eta egoki irizitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehienezko kopuruari dagokionez. Esperientzia gisa aurkeztutako esperientziak zerikusi zuzena badu eta gehienezko puntu kopuru gainditzen badu, zeharkako zerikusia duen esperientziaren atalean baloratu ahal izango dira soberan geratutako hilabeteak.

Atal bakoitzean egiaztatutako ikastaro, gradu ondo, titulu edo baliokideek atal horretarako ezarritako gehienezko muga gainditzen badute, hurrengo atalean balioetsiko dira.

Pertsona ezaugarriak eta egoera sozioekonomikoa		
Generoa	▪ Emakumea	2
Seme-alabak	▪ 1	1
	▪ 2	2
	▪ 3 edo gehiago	3
Elbarritasuna	▪ %33 edo gehiago	1
Lan eskatzaile langabe gisa Lanbiden altan inskribatuta zenbat denbora	▪ 6 hilabete arte	1
	▪ 6-12 hilabete	2
	▪ 12 hilabetetik gora	3
Prestazio kontributiborik edo bestelako subsidiarik jaso gabe zenbat denbora	▪ 6 hilabete arte	1
	▪ 6-12 hilabete	2
	▪ 12 hilabetetik gora	3

Irizpide horien arabera, hautagaiak lortutako puntuen hurrenkeran jarriko dira, puntu gehien lortu dituenetik gutxien lortu dituenera.

Merezimenduak nola egiaztatu

- Ez da balioetsiko eskabidean zehazten ez den eta behar bezala egiaztatzen ez den merezimendurik.
- Lan-esperientzia egiaztatzeke aurkeztu behar dira batetik, bizitza laborala eta, bestetik, enpresako ziurtagiriak. Enpresa-ziurtagiriek argi eta garbi agertu behar dituzte honako datuak: lanpostuaren izena, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta burututako eginkizunak. Horrela ez bada, Epaimahaiak erabakiko du balioetsi ala ez eta nola balioetsi. Enpresa-ziurtagiririk izan ezean, lan kontratuaren kopia ere baliokoa izango da, lanpostuaren eginkizunak zehazten baditu.
- Autonomo gisa izandako lan-esperientzia egiaztatzeke honakoak aurkeztuko dira: lan-bizitza, autonomo altaren egiaztagiria, dagokion epigrafearekin, egindako zerbitzuen egiaztagiria (fakturak, enpresa ziurtagiriak...).
- Lan-esperientzia egiaztatzeke aurkeztutako dokumentuek esperientziaren funtzio eta eginkizunak eta epeak ez badituzte argi eta garbi zehazten, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

- Prestakuntza egiaztatzeko agiriak argi eta garbi adierazi behar dituzte prestakuntza-ikastaroaren izenburua, edukia eta iraupena. Horrela ez baldin bada, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.
- Nolanahi ere den, beharrezkoa dela irizten badio, Epaimahaiak aukera izango du lan-esperientzia edo eta prestakuntza egiaztatzeko dokumentu osagarriak eskatzeko edo egiaztapen lanak egiteko.

4.2. Elkarrizketak

Aurreko ataleko balorazioaren arabera zerrenda egingo da eta puntu gehien duten lehen hautagaiak elkarrizketa egingo zaie. Elkarrizketatuko diren hautagaien kopuru zehatza erabakitzeke, puntu kopuru berbera duen multzo osoa aukeratu edo baztertuko da (lanpostu bakoitzeko gutxi gorabehera 2 edo 3 pertsona elkarrizketatuko dira).

Elkarrizketan baloratuko dira lanpostuaren eginkizun eta ardurekin lotutako tasun eta ezaugarriak.

Elkarrizketak 15 puntu balioko ditu gehienez.

Elkarrizketara aurkeztan ez dena baztertuta geratuko da.

Bi fase horietan lortutako puntuen baturak emango du azken emaitza: Lan esperientzia + Prestakuntza + Pertsona ezaugarriak eta egoera sozioekonomikoa + Elkarrizketa.

Elkarrizketa egin eta lehen hautagaien balorazioa oso antzekoa baldin bada, Epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketa praktikoren bat egitea.

5. Kontratatzeke proposamena eta ezaugarriak egiaztatzea

Balioespenaren eta elkarrizketen emaitzak batu ostean, Epaimahaiak behin-behineko emaitzak onartu eta argitara emango ditu eta 3 eguneko epea emango du erreklamazioak aurkezteke. Erreklamaziorik ez bada, besterik gabe, behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu eta doakion erabakia hartuko du Epaimahaiak.

Jarraian, Epaimahaiak behin betiko emaitzak eta lehen hiru hautagaiak kontratatzeke proposamena egingo dio Udal Elkarteko lehendakariari.

Halaber, gainerako hautagaiekin lan-poltsa eratzeko proposamena egingo dio (puntu gehien dituenetik gutxien dituenera), programak irauten duen bitartean gerta litezkeen hutsuneak betetzeko.

Dena dela, lan-kontratuak egin aurretik, kontratatu behar diren hautagaien egoera egiaztatuko da, hau da, Lanbiden enplegu eskatzaile langabe gisa izena emanda altan egoteko baldintza.

Hautagai batek ez baditu une horretan baldintzak horiek betetzen, baztertuta geldituko da eta zerrendako hurrengo kontratatuko da (betiere bi baldintza hori betetzen badu).

6. Aurkeztu behar diren dokumentu eta datuak

Hautaketa prozesuan parte hartzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

Parte hartzeko dokumentuak:

- Eskabidea
- NANren fotokopia
- Udaleko errolda eta bizikidetasun agiria, familia unitate osoarena (gehienez ere hilabete bat lehenagokoa)
- Unibertsitate ikasketen titulua (diplomatu edo lizentziatua) honako ikasketa hauetan: Hezkuntza Zientziak, Euskal Filologia, Soziologia edo Komunikazio Zientziak.
- 3. hizkuntza eskakizuna (edo baliokidea)

Baloratzeko dokumentuak:

- Bizitza laborala eta lan esperientzia egiaztatzeko enpresa-ziurtagiriak.
- Prestakuntza egiaztatzeko ziurtagiriak.
- Familia-liburua (seme-alabarik izanez gero)

Gizarte ezaugarriei buruzko dokumentuak:

Datu hauek Udal Elkarteak, bere Orientazio Zerbitzuaren bidez, Lanbiden egiaztatuko ditu eta, beraz, ez da dokumenturik aurkeztu behar. Horretarako, eskatzaileak eskabidean datu horiek egiaztatzeko baimena eman behar du, dagokion laukia markatuta. Horrela egiten ez badu dokumentu bidez egiaztatu behar ditu egoera horiek. Hona hemen balioetsiko diren eta Lanbideren bidez egiaztatuko diren datuak:

- Lan eskatzaile langabe gisa Lanbiden altan inskribatuta zenbat denbora
- Prestazio kontributiborik edo bestelako subsidiarik jaso gabe zenbat denbora
- Elbarritasun-aitorpena

Aurkeztutako agiriak jatorrizkoaren kopia konpultsatuak izango dira.

7. Epaimahaia

Honela osatuko da Epaimahaia:

Mahaiburu: Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enpleguko arduraduna
Epaimahaikide:

Udal Elkarteko Orientazio Zerbitzuko 2 teknikari.

Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna.

Idazkari: Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hautaketa-prozesua bideratzea, oinarriotan ezarritakoaren arabera: eskabideen balorazioa egitea, elkarrizketak egitea, azken emaitza ematea eta kontratatzeko proposamena egitea.

Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauek interpretatzeko eta oinarriotan zehaztu gabeko alderdiak erabakitzeko, oinarrietan zehazten denarekin bat etorritik.

Epaimahaiaren eskariz, Epaimahaian parte hartu ahal izango dute Udal Elkarteko nahiz Udal Elkartea osatzen duten udaletako teknikariek, betiere aholkulari gisa eta hautaketa-prozesuko atal eta eginkizun zehatzak burutzeko.

8. Hautaketa-prozesuaren inguruko informazioa

Hautaketa-prozesu honen inguruko komunikazio eta jakinarazpenak (onartu eta baztertuen zerrendak, elkarrizketen deialdia, emaitzak...) Urola Kostako Udal Elkartearen iragarkien taulan eta webgunean emango dira argitara: www.urolakosta.org (lan eskaintzak atala).